


2019ko euskararen garapena DONOSTIAKO ZINEMALDIKO filmetan

Aurten ere, Bagera Elkartek, Zinemaldiaren euskararen erabileraren neurketa egin du. Hona hemen, Sail eta filma guztiak kontutan hartuta 2019ko Zinemaldian izan den euskararen garapena:

Film kopuruei dagokienez, 198 filmetatik 9 euskaraz ekoitzi dira (%4,55), 7 euskarara bikoiztuak (%3,54) eta 23 film euskaraz azpidatzi dira (%11,62). Orotara %19,70 filmetan euskara erabili da.

Emanaldiei dagokienez, azpidatziak izan diren filmen kopurua %6,54 izan da. Euskara hutsez edo euskara eta beste hizkuntza batean ekoiztutako filmen emanaldiak, berriz, %6,54. Euskarara bikoiztutakoak, haur sailean proiektatutako filmak izan dira, aurreko urteetan bezala filma guztiak euskaraz entzun ahal izan dira sail honetan.

Hona hemen **filmetan** grafikoki euskarak izan duen garapena urtez urte ehunekotan:




Orokorrean hartuta, iazko Zinemaldiarekin alderatuta euskara erabilerak behera egin du ia 4 puntutan (%23,29tik %19,70era). 198 filmetatik 39 filmek izan dute euskararen presentzia eta 627 emanaldietatik 77 emanalditan hain zuzen.

Horretaz gain, euskaraz ekoiztutako edo azpidatzitako filmak oraindik ere ez dira sail guztietara zabaldu eta euskararen presentzia oso urria jarraitzen du izaten. Aurten, gainera, Sail Ofizialean euskarazko edo euskaraz azpidatzitako filmek ez dute lekurik izan.

Hona hemen **sailez sail**, aurten, euskaraz izan duen lekua:

Film kopuruen arabera




Oharra: "Euskaraz" diogunean jatorrizko bertsioa euskaraz, euskaraz azpidatzia edo euskaraz bikoiztua izan dela esan nahi dugu.

Saila	Film kopurua	euskaraz	%
Sail Ofiziala	20	0	0
Zuzendari Berriak	14	6	42,85
Horizontes Latinos	15	0	0
Zabaltegi-Tabakalera	22	8	36,36
Perlak	20	5	25
Nest Film Students	14	0	0
Culinary Zinema	13	5	38,46
Made in Spain	16	1	6,25
Zinemira	10	6	60
Belodromoa	4	1	25
Haurrentzako Zinema	6	6	100
Roberto Gavaldon	19	0	0
Klasikoak	3	0	0
Euskal Zinemaren Gala	1	1	100
RTVE Gala	1	0	0
EITB Gala	1	0	0
Donostia sari emanaldia	3	0	0
Film irabazleak	6	0	0
Beste jarduerak	9	0	0



Emanaldi kopuruen arabera



Saila	Emanaldi kopurua	euskaraz	%
Sail Ofiziala	20	0	0
Zuzendari Berriak	14	6	42,85
Horizontes Latinos	15	0	0
Zabaltegi-Tabakalera	22	8	36,36
Perlak	20	5	25
Nest Film Students	14	0	0
Culinary Zinema	13	5	38,46
Made in Spain	16	1	6,25
Zinemira	10	6	60
Belodromoa	4	1	25
Haurrentzako Zinema	6	6	100
Roberto Gavaldon	19	0	0
Klasikoak	3	0	0
Euskal Zinemaren Gala	1	1	100
RTVE Gala	1	0	0
EITB Gala	1	0	0
Donostia sari emanaldia	3	0	0
Film irabazleak	6	0	0
Beste jarduerak	9	0	0



Donostiako Zinemaldiak, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren diru laguntza jasotzen du. EAEn euskara hizkuntza ofiziala denez, Donostiako Udal Ordenantzek hala jasota, euskarak, gutxienez, gazteleraren trataera berdina izan behar du. Baina hori ez da horrela datuek adierazten duten moduan. Are gehiago, euskararen erabilera txikia jarraitzen du izaten. Horregatik, Bagera Elkartek uste du instituzioek esfortzu berezia egin beharko luketela filmak euskaraz azpidatzi edo bikoiztu daitezen. Ikus-entzunezkoak ere badira hizkuntza normaltzeko tresna baliagarria.